



## GOBERNU BATZARRA

2020.12.01

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Begoña Tolosa Mendia**

**Nerea Letamendia Beloso**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Xabier Balerdi Tolosa**

**Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko kontuhartzailea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko abenduaren batean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

**1. Ondorengo aktak onartzea:**

**2020ko azaroaren 20ko ezohiko bilkurako akta onartzea.**

**2020ko azaroaren 24ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

**2. Onartzea Herritarren Arreta Zerbitzuaren (UDATE) eta udal sailen arteko hitzarmenak.**

**3. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko azaroaren 13tik 19ra (2020/1824-2020/1878).**

**1. ONDORENGO AKTAK ONARTZEA:**

**2020KO AZAROAREN 20KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

**2020KO AZAROAREN 24KO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko azaroaren 20ko ezohiko bilkurako eta azaroren 24ko ohiko bilkurako aktak aztertu dituzte. Batzarkideek aho batez onartu dituzte.



## **2. ONARTZEA HERRITARREN ARRETA ZERBITZUAREN (UDATE) ETA UDAL SAILEN ARTEKO HITZARMENAK.**

### **AURREKARIAK**

Indarrean dagoen Konstituzioaren 103. artikulua jasotzen duenaren arabera, Herri Administrazioak objektibotasunez erantzun behar die interes orokorrei, eta efikaziaren printzipioei jarraikiz jardun behar du, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginik. Era berean, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzkoak, 13. artikuluan zehazten ditu herritarrek herri administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak. Horren ondorioz, Administrazioak beharrezkoak diren mekanismoak egituratu behar ditu, eskubide horiek betearazteko.

Azken urteotan, tokiko administrazioa, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa izanik, lanean aritu da herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta areagotzeko.

Helburu hori lortu ahal izateko, eta, bidenabar, bere xedea komunitateari eta komunitateak etengabe izaten duen bilakaerari egokitu ahal izateko, Tolosako Udalak, zerbitzu publikoko erakunde den aldetik, konpromisoa hartu du tokiko berrikuntza abian jartzeko.

Testuinguru horretan, herritarren zuzeneko arreta zerbitzuari modu integral batean heldu zaio, kudeaketan eta informazioan hobekuntzak ezarriz. Hala, erregistro-bulegoak herritarrentzako arreta integraleko zerbitzu bihurtzea bultzatu da, ahalik eta informazio zabalena eskainiz eta izapideak eraginkortasunez egiteko aukera emanez. Zeregin hori gauzatu ahal izateko, Izapideen Eskuliburua ezinbesteko tresna izan da. Eskuliburu horrek herritarrentzat interesgarriak diren izapide gehienak sailkatu eta ordenatu ditu, eta haien esku jarri da, informazio zehatza izan dezaten.

Hortaz, Tolosako Udaleko beharrei buruzko hausnarketa egin ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden hainbat eredu erreferentziatzen harturik, proposatu zen herritarren arreta zerbitzu integrala sortzea (UDATE izenekoa).

UDATE zerbitzua Tolosako Udaleko erreferentziatzko informazio-bulego gisa eratu da. Bertan, udal zerbitzu gehienei buruzko informazioa eskaintzen da era integralean, betiere esku-hartze tekniko espezializaturik behar ez bada. Informazioaz gain, herritarren ekimenez hasi daitezkeen espedienteen eskaerak bideratzen ditu, eta udal eskumeneko zein beste administrazioekin hitzartutako hainbat zerbitzu kudeatzen ditu. Halaber, UDATEk Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako erregistro-arloko laguntza-bulegoei esleitutako eginkizunak beteko ditu.

Zerbitzua emateko era asko daude: aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, posta elektronikoz, sare sozialetan...

Tolosako Udaltzaren Osoko Bilkurak, 2018ko abenduaren 4an egindako bileran, HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (UDATE) arautzen duen Ordenantza hasieraz onartu zuen. Informazio publikoko epean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betikoz onartutzat eman zen.



Ordenantza horretan, besteak beste, UDATE eta gainontzeko udal departamentuen arteko harremanak arautzen dira, bere 7. eta 8. artikuluetan:

**7. artikulua Udaleko Departamentuekiko harremana.**

- a) UDATE Zerbitzua udal egituraren barruko zerbitzu bat da eta Udaleko gainerako arloen zerbitzura dago, herritarrei arreta pertsonalizatua emateko helburu nagusiari jarraiki, izaera transbertsala izanik.
- b) Departamentu bakoitzak eta UDATEk agiri bat sinatuko dute elkarren arteko harremana arautzeko. Agiri hau barne hitzarmen bat izango da.
- c) UDATE zerbitzua lankidetzan jardungo da Udaleko sail eta azpisailekin bere instalazioetan antolatu eta eskainita herritarrei informazioa eta arreta emateko ekimen eta jarduerak, adibidez, informazio orokorra, errolda berritzea, hirigintzako planak, bekak eta laguntzak, matrikulazioak, kanpainak, erreklamazio-epeak, jendaurreko erakustaldiak, etab.
- d) UDATE izango da burutzen dituen funtzioen erantzule. Hala ere, Udaleko gainontzeko sailak dira beren espediente eta ekimenen azken erantzule, guztiz edo partzialki UDATEk zerbitzuak burutu baditu ere.

**8. artikulua. Harremanen barne hitzarmena.**

Tolosako udaleko Sailen eta UDATE Zerbitzuaren arteko harremana arautzeko barne hitzarmenak kontuan izango ditu UDATEk udal Departamentu bakoitzari emango dion zerbitzua ona izateko behar-beharrezkoak diren gai guztiak.

Lankidetzako barne-hitzarmenak sinatuko dituzte Departamentu bakoitzeko arduradun teknikoak eta politikoak eta Udal Idazkaritzako arduradun teknikoak eta politikoak, hori baita UDATE zerbitzuaz arduratzen den saila.

Udal honek onarturiko araudietan xedatutakoaren eta Ordenantza honetan adierazitakoaren arabera, eta indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenen baitan, udal sailek UDATE zerbitzuarekin izango dituzten harremanak arautzeko sinatuko duten hitzarmena euskaraz erredaktatuko dira, euskara delako Tolosako udaleko laneko hizkuntza.

Hitzarmenaren gutxieneko edukia osatzen duten agiri eta jarduketak ere hizkuntza horretan egingo dituzte: izapideen eskuliburua, gertaeren gaineko informazioa (gertaerak, epeak, dokumentazio grafikoaren testuak,..), besteak beste, argitaratu behar den dokumentazioaren kasuan indarrean dagoen legeriak xedaturikoaren kalterik gabe.

Hitzarmenak, gutxienez, honako edukia izango du:

- 1) Sailari dagozkion Izapideen Eskuliburua
- 2) Sailak UDATEri eman beharreko informazioa, aldizkakotasuna eta bidaltzeko bidea.
- 3) UDATE Zerbitzuak gainontzeko sailekin hartzen dituen konpromisoak.



#### 4) Prozeduren aldizkako ebaluazioa.

8.1: Izapideen Eskuliburua: Jasoko da sail/azpisail bakoitzaren izapideen zerrenda, zehaztuta bakoitzean zein gestio dagozkion UDATE zerbitzuari eta zein sail/azpisailari.

#### 8.2. Sail bakoitzeko informazioa.

1). UDATEk duen informazioa benetakoa eta eguneratua dela bermatzeko ezinbestekoa da informazioa bidaltzeko egitura arin, argi eta erabilgarri bat diseinatzea eta, horretarako, behar-beharrezkoa da honako hauek egitea: Pertsona bat izendatzea, dagokion Sailaren eta UDATE Zerbitzuaren arteko bitartekari-lanak egiteko.

2). UDATEn eta Udalaren gainontzeko Departamentuen arteko koordinazio egokia bermatzeko, **Sail bakoitzeko lanpostu erreferente** bat jarriko da, ondorengo funtzioak izango dituen:

- UDATE eta dagokion sailaren arteko bitartekari edo zubi lanak egitea eta herritarren arretako zerbitzuko langileei laguntza ematea, hala eskatzen diotenean.
- UDATE Zerbitzuko koordinatzaileari Departamentuko jardura guztien berri ematea, herritarrei begira eragina badaukate; hala nola, prozeduren, kexen eta erreklamazioen tramitazio egoera, iragarkiak, kanpainak eta, oro har, saileko jardura guztiak.
- Herritarrek UDATEn aurkeztutako eskaerei erantzun bat emateko, dagokion sailaren barruan egin beharreko jardura guztiak zaintzea eta koordinatzea.
- Sailaren eta UDATE Zerbitzuaren arteko harremanak arautzen dituen hitzarmenen edukia behar bezala betetzen dela kontrolatzea, eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzea.
- Konpromisoa hartzea Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko langileei laguntzeko.
- Konpromisoa hartzea ondorengo aldaketen edo egintzen berri Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari berehala emateko:
  - Berriak, jazoerak edo gertaerak.
  - Horien datak eta epeak.
  - Herritarrek tramitazio bete beharreko baldintzak.
  - Gertaeraren tramitazio egoera.
  - Gertaeraren dokumentazio grafikoa.
- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuarekiko erabateko inplikazioa ezartzea, hura delako Udalaren solaskide bateratua.
- Sinatu den Barne Hitzarmena behar bezala betetzeko konpromisoa.

#### 8.3. UDATEk hartzen dituen konpromisoak gainontzeko sailekin::

- Departamentu bakoitzaren eskumenekoa den dokumentazioa erregistratzen den egun berean bidaltzea, lanaldia bukatu aurretik.



- *Sail bakoitzak helarazitako informazioa profesionaltasun eta ardura osoz ematea, arreta eta informazioa eskaintzean, zerbitzua eta kalitatea bermatzeko.*
- *Departamentu bakoitzari, aldian-aldian, herritarrek, zuzeneko tratu horren ondorioz, egin edo iradoki ditzaketan ekarpenak aditzera ematea.*

#### 8.4. *Prozeduren aldizkako ebaluazioa.*

*«Izapideen Eskuliburua» kudeaketa tresna bat da. Tresna horrek, malgua izan behar du, herritarrei emandako zerbitzuaren ebaluaziotik sortutako behar eta eskarietara moldatzen dena.*

*Garrantzitsua da, beraz, elementu bizi eta praktikoa izatea, indarreko legeekin eta garaiko gizartearekin zuzeneko lotura duena.*

*Urtean behin bilera orokor bat egingo da, baina, hala ere, berehala aplikatzekoak diren unean uneko aldaketek sortutako beharrak albo batera utzi gabe.*

Onartutako Ordenantzak xedaturikoa betez, bilerak egin dira Udaleko sailen eta UDATEren artean, eta horien emaitza izan dira une honetan Tokiko Gobernu Batzarrari aurkezten zaizkion hitzarmenak eta eranskinak.

Hitzarmen horiek barne-izaera dute, eta haien xedea da UDATEren eta sail -edo azpisail- bakoitzaren arteko harremanak arautzea. Beraz, barne antolakuntzako tresnak dira. Arestian aipatu den moduan, dinamikoak dira eta etengabeko ebaluazioa behar dute. Hasiera batean, 12 hilabeteko iraupena izango dute. Epe hori iragan aurretik, UDATEk eta sailek hitzarmenak berraztertzeke prozesua garatuko dute, haien testuan beharrezkoak diren aldaketak sartzeko.

Tokiko administrazioaren barne-antolakuntzako tresnak izanik, hitzarmenak onartzeko eskumena alkatearena da, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, aipaturiko Legearen 21.3 artikuluan xedaturikoa jarraituz, alkateak Tokiko Gobernu-Batzarrari eskuordetu diezaioke ahalmen hori.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea udal sailen eta UDATE-Herritarren Arreta Zerbitzuaren arteko harremana arautzeko hitzarmenen onespena.



**BIGARRENA.-** Onartzea Tolosako udal sail/azpisail hauen eta UDATE-Herritarren Arreta Zerbitzuaren arteko harremana arautzeko hitzarmenak eta haien eranskinak:

- Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna.
- Kirolak.
- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena, Mugikortasuna eta Jasangarritasun Energetikoa.
- Ogasuna eta Finantzak.
- Etxebizitza
- Kultura, Jaiak eta Gazteria.
- Komunitatea eta Gobernantza.
- Euskara eta Hezkuntza
- Berdintasuna.
- Garapen Ekonomikoa, Turismo, Merkataritza eta Azokak, eta Enpleguaren Sustapena.

Hitzarmenen klausula orokorrak honako hauek dira:

**KLAUSULAK:**

**LEHENA.- INFORMATZEKO ZEREGINA.**

*Hitzarmen honen bitartez, UDATE konprometitzen da egoki erantzutera herritarrek gai hauen inguruan eskatutako informazioari: departamentuaren eskumenekoak diren interes orokorreko jarduerak, kanpainak eta administrazio-prozedurak.*

*Hain zuzen ere, informazio hau emango da:*

- \* *Iragarki ofizialei, dirulaguntzei, bekei, laguntzei, sailaren mendeko zerbitzuei, erakundeei, kanpainei eta, oro har, jardueri buruzkoa.*
- \* *Departamentuaren eskumeneko udal izapideei buruzkoa (izapidetze-egintzak), besteak beste, prozedurak, dokumentazioa, izapidetzearen epeak eta egoera, tasak, eta abar.*
- \* *Herritarrek eskatutako bestelako informazioa, Udalak eman ohi duena bada.*

*UDATEk zeregin hori egoki emango duela bermatzeko, ZZZZ Departamentua<sup>1</sup> konprometitzen da aldez aurretik, eta behar adina denborarekin, UDATEri interes publikoko **kanpainei edo jardueri** buruzko edozein informazio ematera, Udalaren intranetean eta/edo **webgunean** argitaratuta, hala, UDATEk egoki erantzun ahal izan diezaien herritarren eskakizunei.*

*UDATEk emango ditu herritarrengan eragina izan eta Sailaren eskumenekoa den edozein kanpainaren informazio-, erregistro- eta kudeaketa-zerbitzuak, baldin eta bere baliabideek —lekua, bitarteko materialak eta pertsonala— hartarako aukera ematen badute.*

1 Aurrerantzean “Departamentua”, “Departamentua” edo “Saila”.



*Baldin eta aurreikusten bada UDATEk behar adina baliabide ez duela izango, kanpainaren ondorioz jende asko etorriko dela-eta, Departamentua konprometitzen da behar den laguntza ematera eta, kanpainak irauten duen bitartean, Sailaren langileekin UDATE indartzera.*

*Departamentua konprometitzen da urte bakoitzeko abenduaren lehen hamabostaldian UDATEri jakinaraztera zein diren hurrengo urterako planifikatuta dauden kanpainak eta kanpaina horiek ze ondorio ekar ditzaketen, biek elkarrekin planifikatzeko UDATEren dimentsionamendu egokia.*

*Kanpainen jakinarazpena: abenduaren hasieran, urtaro bakoitzean egiten diren kanpainen planifikazioa<sup>2</sup> bidaliko zaio UDATEri, kanpaina bakoitzeko datu hauek emanda:*

- *Kanpainaren izena.*
- *Deskribapena.*
- *Herritarrei eman beharreko informazioa.*
- *Egin beharreko izapideak.*
- *Behar diren baliabideak.*
- *Publiko objektiboa (tipologia eta bolumena).*
- *Behar den edo aintzat hartzekoa den beste edozein informazio.*

*Halaber, kanpainak ezohikoak edo bereziak direnean, Departamentua konprometitzen da lehen aipatutako informazioa **bi hilabete** lehenago ematera.*

## **BIGARRENA.- KUDEATZEKO ZEREGINA**

*Herritarrei eragiten dieten izapideei dagokienez, Departamentuak erabakiko du, eduki funtzionalagatik dagokion arloan, zein prozedura jarraitu behar den tramite bakoitzean kudeatzeko edo informatzeko, baita izapide bakoitzeko jarduteko irizpideak ere, bat etorrita honekin batera doan Eranskinean xedatutakoarekin.*

*Saila konprometitzen da UDATEri berehala jakinaraztera Izapideen Eskuliburuan egindako aldaketak.*

*Prozeduraren izapideetan edo izapidetzeko moduan aldaketarik, edozein dela ere, gertatuz gero, Departamentuak dagokion fitxa gaurkotu behar du Izapideen Eskuliburuan (ZERBIKAT). Nolanahi ere, Departamentua konprometitzen da bilerak izatera UDATErekin urte bakoitzeko urtarilean, Eskuliburuan sartutako administrazio-prozedura bakoitza berrikusteko eta bere eskumeneko izapideak gaurkotzeko eta/edo errazteko.*

*Aldaketak Tolosako Udalaren **webguneko "Tramiteak"** atalean argitaratuko dira, eta horiekin batera, Departamentuak jakinarazitako informazioa, horren helburua delarik herritarrei informazio zehatz eta ofiziala ematea, bai aurrez aurreko elkarrizketen bidez, bai telefonoaren edo webgunearen bidez. Udalaren Webgunean argitaratutako administrazio-izapideei buruzko informazioa bakar bat izango da izapide bakoitzeko, eta Tramiteen atalean egongo da. Baldin eta prozedura edo izapide baten gaineko informazioa Udalaren webguneko beste atal batetik aipatu behar bada, "Tramiteak" atalean kokatutako prozedura edo izapideekiko esteka baten bidez egingo da, beren edukian izan daitezkeen kontraesanak edo bikoizketak saihesteko.*

*Departamentua konprometitzen da berak kudeatzen dituen **espediente eta jardueren izapidetzearen egoeraren** gaineko informazioa UDATEri ematera, horrek, osotasun printzipioa*

*2 Errepublikatzen diren eta udal aurrekontuetan identifikatuta dauden izaera estrukturalako kanpainak dira. (Adibidez, Kulturari: festak, dirulaguntzak, salmenta Ibiltaria, e.a.; Diru-bilketan: premiamendu-gutunak, e.a.; Zerga-kudeaketan: ibilgailuak, Katastroaren gaineko jakinarazpenak, e.a.)*



beterik, herritarrek eskatzen duen informazioari behar bezala erantzun ahal izan diezaion. Zeregin hori betetzeko, Departamentuak bere gain hartzen du bertako izapideak kudeatzeko erabiltzen dituen informatika-aplikazioak espediente-kudeaketako plataforman txertatzeko erraztasunak emateko obligazioa, horren helburua delarik herritarrei eragiten dieten prozedura eta jardueren egoeraren gaineko informazioa puntu bakar batean biltzea, eta, horrela, UDATEri udal aplikazio guztietarako sarrera eragozte.

Departamentuak bere gain hartzen du UDATEko langileen hasierako prestakuntza- eta birziklatze-ikastaroan parte hartzeko obligazioa, horren helburua delarik UDATEri Sailaren eskumeneko administrazio-prozesu, jarduera eta kanpainen gainean enkargatutako informazio- eta/edo kudeaketa-zereginak hobetzea. Prestakuntza-aldiak izango dira, gehienez, urtean 3 egunekoak, eta Departamentuaren bulegoetan bertan emango dira.

#### **HIRUGARRENA.- DOKUMENTUAK ERREGISTRATZEKO ZEREGINA.**

Hitzarmen honen bidez, UDATEk konpromiso hau hartzen du: "Sarrera Erregistro Orokorrean" erregistratzea Udaletxean eskuz, postaz edo Erregistro Telematiko jasotako edozein eskaera, idatzi edo komunikazio, Departamentuak izapidetzekoak direnak, bai Izapideen Eskuliburuan jasotako prozeduretako bat izateagatik, bai Departamentuaren eskumenekin lotura zuzena duten gaiak izateagatik.

Departamentuak bere gain hartzen du obligazio hau: erregistro-idazpena jasotzea, **gehienez 3 egun balioduneko epean**, Erregistrotik sartzen denetik kontatuta, Sarrera Erregistro Orokorrean, eta gero hura izapidetzea.

Departamentuak uste badu berari ez dagokiola espedientea tramitatzea, UDATEra **itzuliko du gehienez bi egun balioduneko epean**, zergatik itzultzen duen azalduta. UDATE zerbitzua konprometitzen da dokumentuaren hartzailea zuzentzera, Sarrera Orokorreko Erregistroko aplikazioaren bidez.

Espedientea bi aldiz, alegia, bi Departamentuk botatzen badute atzera, UDATEk bere gain hartzen du hura Idazkaritza Nagusira bidaltzeko obligazioa, Alkatetzan aurkezteko behar den ofizioarekin lagunduta.

Departamentua konprometitzen da Irteera Erregistro Orokorra kudeatzera bere eskumeneko espedientei dagokienez, deskontzentrazioaren printzipioa aplikatuta.

#### **LAUGARRENA.- TELEFONO BIDEZKO ARRETA, POSTA ELEKTRONIKOA ETA WEBGUNeko DATU-ORRIA.**

UDATEk obligazio hau hartzen du bere gain: jaso, erregistratu eta erantzutea herritarrek 010 telefono-kanalaren, "udate@tolosa.eus" posta elektronikoko kontuaren eta webguneko "partehartzen" datu-orriaren bitartez, eta modu zuzenean egindako kontsultak, iradokizunak, oharrak eta kexak.

UDATEk zuzenean erantzuteko konpromisoa hartzen du erantzuna "berehalakoa" izan behar duenean. **Erantzun geroratu**a denean, UDATEk bere gain hartzen du komunikazioa eskumeneko Departamentura bidaltzeko konpromisoa, interesdunari emanik kexa edo kontsulta hori dela-eta ireki den espedientearen zenbakia, halakorik badago.





Departamentua konprometitzen da bere eskumeneko gaien gaineko kontsulta, iradokizun, ohar eta kexei erantzutera, baldin eta kontsulta, iradokizun, ohar eta kexa horiei gehienez **hamar eguneko** epean erantzun geroratu eman behar bazaie.

UDATE konprometitzen da "Telefogune" zerbitzua ematera, alegia, kanpotik datozen deiak hartu eta dagokion sailera/azpisailera bideratzera, baina, bideratu aurretik behar diren galderak egingo ditu gaia bertan konpontzeko eta sailetara/azpisiletara ahalik eta dei gutxien bidaltzeko.

UDATE konprometitzen da herritarrek egindako eskertzeak dagokien teknikari edo politikariei bideratzera.

#### **BOSGARRENA: BULEGO ELEKTRONIKOAK.**

Departamentua konprometitzen da izapide errazak eta asko errepikatzen direnak hiritarren esku jartzera "bulego elektronikoen" bitartez, bulego horiek jartzeko eta gaurkotzeko behar diren lankidetzak-ekintza guztiak eginik eta UDATEri kudeaketa-ekintza horien edukari eragiten dieten aldaketak berri emanik.

UDATE konprometitzen da Departamentuak bere eskura jarritako kudeaketa-tramiteak egiteko sistema elektronikoak bultzatzera eta herritarren artean hedatzera, eta bulego elektronikoaren erabilerearen inguruan dituzten dudak zuzenean, telefonoz edo webgunearen bidez konpontzera.

#### **SEIGARRENA: BULEGO BIRTUALA.**

Departamentua konprometitzen da Udalaren webguneko bulego birtualean bere eskumeneko tramiteak sartzen joatera. Helburua da herritarrek Udalaren tramiteak kontsultatu eta kudeatu ahal izatea eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak xedatutako arauak betez.

UDATE konprometitzen da Departamentuak bere eskura jarritako kudeaketa-tramiteak egiteko bulego birtualaren erabilera bultzatzera eta herritarren artean hedatzera, eta bulego horren erabilerearen inguruan dituzten dudak zuzenean, telefonoz edo webgunearen bidez konpontzera.

#### **ZAZPIGARRENA.- AURRETIKO HITZORDUA.**

Herritarren eskariei Sailari atxikitako arreta bereziko udal langileen esku-hartzea behar dutenetan, berehalako arreta ematea ezinezkoa denean, "Aurretiko hitzordua" prozedura erabiliko da. UDATEk kudeatuko du prozedura hori, behar diren agenda elektronikoetan arretako egunak eta orduak emanda.

Departamentua konprometitzen da UDATEri honako datu hauek ematera: "Aurretiko hitzordua" zerbitzua jasotzen duten langileen zerrenda; bisitak hartzeko egunak eta ordutegiak; bisiten batez besteko arreta-denbora, eta gai orokorren edo hiritarrek behar izaten dituzten kontuen zerrenda bat. Orobat, konprometitzen da emandako arreta-denborei etengabe eustera eta UDATEri gorabehera guztiak, edozein direla ere, behar den aurrerapenarekin jakinaraztera.



Behin herritarrarekin hitzordua jarriz gero, eta gorabehera baten ondorioz hitzordua **bertan behera utzi** behar bada, arretarako langileak atxikita dauzkan Departamentuak horren berri eman beharko dio zerbitzuaz interesatuta dagoen herritarrari, beste hitzordu bat hartu nahi badu ere.

#### **ZORTZIGARRENA.- JARDUEREN KONTROLA: ADIERAZLEAK.**

UDATEren ardura duen departamentuak **urteko memoria** bat idatziko du urte bakoitzeko urtarrilean. Bertan, informazio estatistikoa emango du bere eskumeneko zerbitzuen inguruan, honako informazio hau ustiatuta:

- Dokumentuen Sarrerako Erregistroan zuzenean, postaz eta Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideak, Departamentuari bideratzekoak direnak.
- Telefonoaren, UDATEren posta elektronikoaren eta webguneko datu-orriaren bitartez eta zuzenean jasotako kontsultak, iradokizunak, oharrak eta kexak, Departamentuari bideratzekoak direnak.
- UDATEn zuzenean, hau da, aurrez aurre egindako tramiteen gaineko informazioa, halakorik badago.
- Bulego elektronikoaren bidez egindako tramiteen gaineko datuak, halakorik badago.
- Udalaren webguneko bulego birtualaren bidez egindako kudeaketa-egintzen gaineko datuak, halakorik badago.
- UDATEk kudeatutako kanpainak eta Departamentuaren beste jarduera batzuk.

Departamentua konprometitzen da informazio hori analizatzera UDATErekin koordinazio egokia izateko, eta, horrela, herritarrak artatzeko zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

#### **BEDERATZIGARRENA.- SAILEKO ERREFERENTEA.**

UDATEren eta sailen/azpisailen artean egon behar duten lan-harreman iraunkorrak egoki bideratuko badira, Departamentu bakoitzeko pertsona bakar bat aukeratu eta izendatu behar da. Izendatze hori sailari/azpisailari dagokio eta aukeratutako pertsonak izan behar du bertan egiten diren jardueren berri dakiena eta figura horrentzat erreserbatutako funtzioak burutzeko gaitasuna duena.

ZZZZZZZ Departamentuan, DDDDD lanpostuari egokiko zaio Erreferentearen figura, zeinak, oro har, funtzio hauek beteko dituen:

- Departamentuaren eta UDATEren arteko solaskide bakarra izatea eta, Hitzarmen honetan deskribatutako funtzioei eta hartutako konpromisoei dagokienez, beren arteko harremanak bideratzea (informazioa ematea, dokumentuak erregistratzea, telefono bidezko arreta ematea eta arduratzea posta elektronikoaz, webguneko datu-orriaz, bulego elektronikoaz, bulego birtualaz, aurretiko hitzorduez eta adierazleez).
- Hartzaille bakarra izatea eta, Hitzarmen honetan deskribatutako funtzioei dagokienez, Departamentuaren eta UDATEren arteko harremanak bideratzea.
- UDATEko koordinatzaileari etengabe ematea herritarrengan eragina duten gaien berri, nola barne antolakuntzari dagozkionak, hala departamentuaren jarduerari dagozkionak. Gainera, behar diren koordinazio-bilera guztietara joatea.

Era berean, Departamentuak ordezeko bat izendatuko du erreferente titularrak bere funtzioak bete ezin dituen garaietarako. Kasu honetan, ordezekoa izango da YYYY lanpostua hornitzen duen enplegatua.



**HAMARGARRENA.- GATAZKEN KONPONKETA.**

Alkateak ebatziko ditu, Idazkaritzako txostena jaso ondoren, Departamentuaren eta Herritarren Arretako Zerbitzuaren arteko gatazka guztiak, edozein direla ere.

**HAMAIKAGARRENA.- BARNE HITZARMENAREN IRAUPENA ETA BERRIKUSKETA.**

Hitzarmen honek 12 hilabeteko iraupena izango du, eta automatikoki berrituko da, non eta alderdietako batek eragozpenik jartzen ez duen.

**HAMABIGARRENA.-ERANSKINA**

Hitzarmen honek jasotzen du, eranskin gisa, Departamentuak UDATE Zerbitzuari esleitutako izapideen zerrenda. Eranskin hori hitzarmen honen zati da, eta haren edukia hitzarmenaren klausulen arabera arautuko da.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea udal sail guztiei.

**3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO AZAROAREN 13TIK 19RA (2020/1824-2020/1878).**

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko azaroaren 13tik 19ra bitartean (2020/1824-2020/1878) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1824	2020	13/11/2020	INFORMATIKA	PROXMOX KLUSTER KONTRATZEA BINOVO ENPRESAREKIN
1825	2020	13/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.E.P. - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAN ALTA.
1826	2020	13/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	J.M.D.G. - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAN ALTA.
1827	2020	13/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.L.P.O. - ETXEZ ETEKO ZERBITZUAN ALTA.
1828	2020	13/11/2020	HIRIGINTZA	EMAKUMEEN ETXEKO LOKALEAN SANEAMENDUA ONDO JARTZEKO ESKAERA
1829	2020	13/11/2020	HIRIGINTZA	INTXUR ELKARTEAREN HITZARMENEAN ALDAKETA
1830	2020	13/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	2020KZZG0047 - ZATIKAPENA ONARTZEA
1831	2020	13/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	2020KZZG0048 - ZATIKAPENA ONARTZEA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1832	2020	13/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	2020KZZG0049 - ZATIKAPENA ONARTZEA
1833	2020	16/11/2020	PERTSONALA	E.Z.F.-EN ESKAERAREN ERANTZUNA
1834	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 18KO EIT TXOSTENA BERRI BAT EGITEKO ERREKERIMENDUA
1835	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 4KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKO ESKU-HARTZEAK EGITEKO AGINDUA ETA BETEBEHARREKO BALDINTZAK BETETZEA
1836	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	KONDEANEKO ALDAPA 32KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKO ESKU-HARTZEAK EGITEKO AGINDUA ETA BETEBEHARREKO BALDINTZAK BETETZEA
1837	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	KONDEANEKO ALDAPA 17KO EIT TXOSTENAREN AZTERKETA
1838	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	KONDEKO ALDAPA 19KO EIT TXOSTENAREN AZTERKETA
1839	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	KONDEANEKO ALDAPA 21EKO EIT TXOSTENAREN AZTERKETA
1840	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	ELEKTRIZISTA BAT KONTRATATZEA EPA IKASTETXEAN
1841	2020	16/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	G.B.V.RI UZTURRE ASISTENTZIA GUNEKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOKO GELA BAT ADJUDIKATU
1842	2020	16/11/2020	HIRIGINTZA	HAUR ESKOLAKO KALTEAK KONPONKETA ORDAINTZEA
1843	2020	16/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	2020ZTHE0002 - HONDAKINEN TASA HOBARIA
1844	2020	17/11/2020	HIRIGINTZA	AUZOTXIKIA P.K. 432,500 N-1 GASOLINDEGIKO BARRUAN ERABERRITZE LANAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
1845	2020	17/11/2020	PERTSONALA	URRIKO GIZARTE SEGURANTZAKO LIKIDAZIOEN GASTUA ONARTZEA
1846	2020	17/11/2020	UDALTZAINGOA	ISUNEN ORDAINKETARI ITZULKETA
1847	2020	17/11/2020	UDALTZAINGOA	ISUN BATEN ORDAINKETAREN ITZULKETA
1848	2020	17/11/2020	UDALTZAINGOA	ISUNA ORDAINKETAREN ITZULKETA

ESKUA05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1849	2020	17/11/2020	UDALTZAINGOA	TRAFIKO ISUNAREN ORDAINKETA ITZULKETA
1850	2020	17/11/2020	HIRIGINTZA	SAIKIN TABERNARI EGINDAKO ESKAERARI MAHAI GEHIAGO JARZEKO EZEZKOA ESATEA
1851	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	17509 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
1852	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	20398 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
1853	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	21599 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
1854	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	2253 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1855	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	6587 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1856	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	20916 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1857	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	15543 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1858	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	15957 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1859	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	16452 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1860	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	26911 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1861	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	26919 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1862	2020	17/11/2020	DIRU-BILKETA	27769 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.

ESKUA05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1863	2020	18/11/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0008 ERANTZUKIZUNA GUREAK BERDEA
1864	2020	18/11/2020	HIRIGINTZA	I.L.MENDIZABAL PASEALEKUA 1 BEHEAN TITULARTASUN ALDAKETA ESKAERA ONARTZEA
1865	2020	18/11/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0031 ESPEDIENTEAN ERANTZUKIZUNA GUREAK BERDEARENA
1866	2020	18/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	FAKTURAK ORDAINTZEA GLL KONTURA
1867	2020	18/11/2020	HIRIGINTZA	PLAZA ZAHARRA 10EKO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1868	2020	18/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KZZG0046 - ZATIKAPENA ONARTZEA
1869	2020	19/11/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 42KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1870	2020	19/11/2020	HIRIGINTZA	ALDABA AUZOA 19KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1871	2020	19/11/2020	HIRIGINTZA	ALDABA AUZOA 18C ERAIKINEKO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1872	2020	19/11/2020	ENPLEGUA	2020-9642 ERREGISTRO ZENBAKIA DUEN KEXARI ERANTZUNA
1873	2020	19/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	13/2020 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA
1874	2020	19/11/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 30-2D ETXEBIZITZAN BARNE-ERABERRITZEKO LIZENTZIA EMATEA
1875	2020	19/11/2020	HIRIGINTZA	SAN ESTEBAN 38KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1876	2020	19/11/2020	IDAZKARITZA	GIPUZKOA PLAZAKO 20 ZENBAKIA DUEN GARAJEAREN PREZIOA ZEHAZTEA
1877	2020	19/11/2020	AZOKAK	L.S.H JAUNAK EGINDAKO ESKAERA ONARTZEA, EUAKAL HERRIAN PLAZAN BAJA EMATEKO.
1878	2020	19/11/2020	ALKATETZA	MAINDI ELKARTEARI GAZTE TOPAGUNEKO KONTRATUA BETE ONDORENGO FIDANTZA ITZULPENEA

ESKUA05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638



TOLOSAKO  
UDALA

2020IGBA0036

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 11:55ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

ESKUa05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638



TOLOSAKO  
UDALA

2020IGBA0036

## ERANSKINA I

### HERRITARREN ARRETA ZERBITZUAREN (UDATE) ETA UDAL SAILEN ARTEKO HITZARMENAK.

ESKUa05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638





TOLOSAKO  
UDALA

## GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA

GOSP	<b>OSASUNANERAKO</b> ETA ADIKZIOEN PREBENTZIOA	Herritarrak	Guztiak	Eskaeraren arabera	Behartutakoan	Informatu eta hitzordua eman. Nahi badu, eskaera erregistratu eta Gizarte Zerbitzuetara bideratu.
GEEB	<b>GIZARTE ZERBITZUETAKO ELKARTEAK ERAKUNDEAK ETA BOLUNTARIOTZA</b>	Elkarteak / Herritarrak	Guztiak	Eskaeraren arabera	Behartutakoan	Informatu eta hitzordua eman. Nahi badu, eskaera erregistratu eta Gizarte Zerbitzuetara bideratu.
DGZL	Nazioarteko lankidetzarako dirulaguntzak	Elkarteak / Herritarrak (c)	Erregistro telematikoa (arrunta ataleko eskaeretan)	Ez	Deialdia. 20-30 eguneko epea. Zuriketa hurrengo urtarrilaren 31 baino lehen.	Informatu, dokumentazioa gainbegiratu, eskaera erregistratu eta Gizarte Zerbitzuetara bideratu, ebazteko.
DGZO	Osasun eta gizarte zerbitzuen alorreko jarduerentzako dirulaguntzak	Elkarteak	Erregistro telematikoa	Ez	Deialdia. 20-30 eguneko epea. Zuriketa hurrengo urtarrilaren 31 baino lehen.	Informatu, dokumentazioa gainbegiratu, eskaera erregistratu eta Gizarte Zerbitzuetara bideratu, ebazteko.
GISE	Izaera sozialeko elkarteei gelak-eraikinak uztea	Elkarteak	Erregistro telematikoa	Ez	Behartutakoan	Informatu, eskaera erregistratu eta Idazkaritzara bideratu.
GOPB	Oporrak bakean, haur Sahararren egonaldia Tolosan	Herritarrak	Erregistroa (arrunta edo telematikoa)	Bai	Behartutakoan	Informatu eta Gizarte Zerbitzuetara bideratu.



TOLOSAKO  
UDALA

## KIROLAK

Hitzarmenaren ERANSKINA: sailaren eskuduntzakoak diren izapideen zerrenda eta UDATEri ematen zaizkionak, hain zuzen ere, UDATEren egitekoen zehaztapena.

KANPAINA	TRAMITEA	ESKATZAILEA - ERANTZULEA- kanala	EPEAK- DATAK	INPRIMAKIAK	DOKUMENTU OSAGARRIAK	UDATEREN EGINKIZUNA
<b>DIRULAGUNTZAK KIROLAK</b>	<b>ESKAERAK</b>					
	Kirol egiturak (1. eranskina)	Kirol elkarteak  Erregistro telematikoa	Martxo	DO10KI -Eskaera BAI-ID 01 Baimen klausula  ZIN-ID-01 Zinpeko aitorpena	.-Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainketa egunean dutelako frogagiria.  .-Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean daudela ziurtatzen duten agiriak, kontsulta hori egiteko baimen inprimakia ez bada aurkezten.	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
	Eskola Kirola (2. eranskina)	Tolosako ikastetxeak edo haien guraso elkarteak. Erregistro telematikoa	Martxo	DO10KI -Eskaera BAI-ID 01 Baimen klausula  ZIN-ID-01 Zinpeko aitorpena	.-Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean daudela ziurtatzen duten agiriak, kontsulta hori egiteko baimen inprimakia ez bada aurkezten.	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
	Jarduera bereziak (3. eranskina)	Klubak, federazio, elkarte, pertsona fisikoak.		DO10KI -Eskaera BAI-ID 01 Baimen klausula	.-Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainketa egunean dutelako frogagiria.  .-Zergen ordainketetan eta Gizarte	

ESKUTA05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638



TOLOSAKO  
UDALA

**DIRULAGUNTZAK  
KIROLAK**

ESXUa05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638

	Erregistro telematiko edo presentziala, pertsona fisikoen kasuan.	Martxo	ZIN-ID-01 Zinpeko aitorpena A3-Proiektua	Segurantzaren egunean daudela ziurtatzen duten agiriak, kontsulta hori egiteko baimen inprimakia ez bada aurkezten.	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
Igeriketa kanpaina (4. eranskina)	Tolosako Ikastetxeak. Erregistro telematiko	Martxo	DO10KI -Eskaera BAI-ID 01 Baimen klausula ZIN-ID-01 Zinpeko aitorpena	.-Zergen ordainketetan eta Gizarte Segurantzaren egunean daudela ziurtatzen duten agiriak, kontsulta hori egiteko baimen inprimakia ez bada aurkezten.	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
<b>KONTU ZURIKETA</b>					
Kirol egiturak (1. eranskina)	Klubak	Irailak 30	A1 Kirol Jardueren memoria BAKI Dirulaguntzen balantzea KZKI Kontu zuriketa KIROLAK	.A3-inprimakia, dagokion kasuetan .Fakturak	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
Eskola Kirola (2. eranskina)	Tolosako Ikastetxeak edo haien guraso elkarteak	Uztailak 30	A2-Memoria KZKI Kontu zuriketa KIROLAK	.-Egonez gero, kirol elkarteekin sinatutako hitzarmenak. .Fakturak	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.



TOLOSAKO  
UDALA

ESXUa05a5650-e1aa-4b75-a28e-5750fd60e638

	Jarduera bereziak (3. eranskina)	Klubak, federazio, elkarte, pertsona fisikoak	Urria 31	<a href="#">A3-Memoria</a> <a href="#">BAKI-3 balantzea</a> <a href="#">KZKI Kontu zuriketa</a> <a href="#">KIROLAK</a>	.-Fakturak	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
	Igeriketa kanpaina (4.eranskina)	Tolosako Ikastetxeak	Uztaila 30	<a href="#">A4-Memoria</a>	.-Fakturak .- Ordainketaren agiria	Dokumentazio guztia dagoela gainbegiratu eta Kiroletara pasa.
	<b>KIROL JARDUERAK EZ DIREN EKINTZETARAKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO BAIMEN ESKAERA- (KIER)</b>	Interesa duen edozein pertsona edo erakunde, edo haien ordezkariak	Urtean zehar	<b>Jarduera egin baino bi hilabete lehenago:</b> <a href="#">E00-Eskaera orria</a>	Behar izanez gero, Udalaren materiala erabiltzeko eskaera orria.  Behar izanez gero, edukiontzien eskaera orria.	Eskaera jaso, gainbegiratu eta Kiroletara bideratu.
	<b>EZOHIKO KIROL JARDUERETARA KO BAIMEN ESKAERA-(KIJA)</b>	Interesa duen edozein pertsona edo erakunde, edo haien ordezkariak	Urtean zehar	<b>Jarduera egin baino bi hilabete lehenago:</b> <a href="#">E00-Eskaera orri orokorra,</a> <a href="#">jarduerari buruzko argibide</a> <a href="#">garrantzitsuak adieraziz.</a>	Behar izanez gero, Udalaren materiala erabiltzeko eskaera orria.  Behar izanez gero, edukiontzien eskaera orria.	Eskaera jaso, gainbegiratu eta erregistratu.



TOLOSAKO  
UDALA

## HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA

Hitzarmenaren ERANSKINA: sailaren eskuduntzakoak diren izapideen zerrenda eta UDATEri ematen zaizkionak, hain zuzen ere UDATEren egitekoen zehaztapena.

	TRAMITEA	INPRIMAKIAK	AURKEZTU BEHARREKO GAINONTZEKO AGIRIAK	UDATEREN EGINKIZUNA
<b>OBRAK EGITEKO ETA JARDUERAK EZARTZEKO BAIMENAK</b>	<b>OBRA TXIKIAK / OBRA JAKINARAZPENAK</b>	-H333 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Egin behar diren obrak deskribatzen dituen memoria. -Aurrekontu osoa, egin behar diren obrak kapituluka eta partidaka xehatuta, kontratistaren menbretea duela edo tekniko eskudun batek idatzia. -Leihoak aldatu behar badira, jarri behar diren leihoen krokisa eta dauden leihoen argazkiak. -Etxebizitzan edo lokalen barne-erreforma bada, egoeraren oinplanoa eta sekzio-planoa.	-Jaso, egiaztatu, eskaneatu eta sarrera eman. -Hala badagokio, eskatu zuzenketak egiteko edo dokumentazio gehiago aurkezteko. -Autolikidazioa sortu. -Ordainagiria ordaindu -Jakinarazpen elektronikoa? -Dagokion sailera bidali.
	<b>OBRA TXIKIAK / MERKATARITZA / OBRA JAKINARAZPENAK</b>	-H336 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Egin behar diren obrak deskribatzen dituen memoria. -Egin behar diren obren aurrekontu xehatua. -Kokapen-planoa. -Oinplano eta sekzio-plano kotatuak, 1:50 eskalan (egungo egoerarena eta erreformatuarena). -Fatxadaren argazkia.	
	<b>JARDUERA SAILKATUAK - AURRETIAZKO JAKINARAZPENA</b>	-H403 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Teknikari gaitu batek emandako ziurtagiria, egiaztatze jarduerak edota instalazioak bat datozela aurkeztutako eraikitze-proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ondo betetzen dituztela ingurumenarekiko bete behar guztiak, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotakoak barne, hala badagokio. -Proiektu-egilearen prestakuntza tekniko edo gaikuntza profesionalaren egiaztapena, baldin eta proiektua dagokion elkargo profesional bisatuta ez badago. -Proiektu tekniko bat, gaikuntza eta eskumena dituen profesional batek egina. -Baimen sektorialak (hala badagokio): -Industria Sailak jaulkitzen duen zerbitzua abiatzeko akta. -Osasun baimena (elikadura, ostalaritza...). -Ur Kontsortzioaren baimena isurketetarako (industria jardueren kasuan). -Hondakin arriskutsuak onartzeko agiria, baimendutako kudeatzaileak jaulkitakoa. -Suteen aurkako babes-instalazioen mantentze kontratua. -Erantzukizun Zibileko Poliza (Ikuskizunak eta Aisialdiko Jarduerak).	
	<b>JARDUEREN TITULARITATE ALDAKETA</b>	-H405 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Ziurtagiri bat tekniko gaitu batek egina, non egiaztatzen den jarduera lizentziarekin bat datorrela.	
	<b>JARDUERA IREKI AURREKO KONTSULTAK</b>	H303 Eskaera Orria. -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	<b>JARDUERA IREKI AURREKO KONTSULTAK</b> -Jarduera deskribatzen duen txosten bat, honako azalpen hauekin: -Jardueraren deskripzioa (merkataritza, industria, ostalaritza...) eta kokalekua. -Lokalaren azalera eta gelak: komunak, biltegiak... -Makineria: mota eta potentzia. -Pertsonengan eta ingurumenean izan ditzakeen eraginak: hotsak, hondakinak, isurketak... -Ondorioak txikiagotzeko proposatutako neurriak.	
	<b>BIDE PUBLIKOAN OBRETAKO BALIABIDE LAGUNGARRIAK JARTZEKO LIZENTZIAK</b>	-05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio) DORRE-GARABIAK INSTALATZEKO	<b>DORRE-GARABIAK INSTALATZEKO</b> -Garabia instalatzeko proiektua, teknikari eskudun batek sinatua eta elkargo ofizialean bisatua. -Enpresa instalatzailearen adierazpena, teknikari eskudun batek sinatua, egiaztatuz muntatu beharreko garabiaren elementuak egoera onean daudela eta onartuz garabiaren instalazioa bere gain hartzen duela funtzionatzeko egoera ezin hobean utzi arte. Adierazpen horretan jaso behar da garabiak gehienez ze	



TOLOSAKO  
UDALA

		-H310 eskabide-orria. GAINERAKO BALIABIDE LAGUNGARRIAK -H335 Eskabide-orria.	karga garraia ditzakeen bere posizio desegokienetan eta aurreikusten diren erabilera-kasuetan. -Aseguru-poliza bat, eragin ditzakeen kalteen gaineko erantzukizun zibil mugagabearen estaldura duena.  GAINERAKO BALIABIDE LAGUNGARRIAK -Eskabide-orriaren eredian zehaztutako dokumentuak (kasuaren arabera).	-Jaso, egiaztatu, eskaneatu eta sarrera eman. -Hala badagokio, eskatu zuzenketak egiteko edo dokumentazio gehiago aurkezteko. -Dagokion sailera bidali.
<b>LIZENTZIA BEHAR DUTEN OBRA TXIKIAK</b>	-H334 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Parte hartzen duten gremio guztien aurrekontua, eskulana eta materialak sartuta. Beste agiri batzuk, kasuaren arabera: a) Ur eta saneamenduko harguneen kasuan: -Proiektatutako obren eta erabilitako materialen deskribapen osoa. -Kokapen-planoa, 1:100 eskalan. -Proiektatu diren hornidura- eta/edo saneamendu-instalazioen planoak. b) Toldoak, errotuluak, markesinak, ispiluak, posteak eta antzekoak jartzeko: -Fatxadaren altxaeraren krokis kotatua, jarri behar den elementuaren kokapena eta neurriak adierazita; errotuluak eta toldoen kasuan, testua ere bai. -Kokapen-planoa, 1:100 eskalan. c) Finken itxiturak, lorategietako obrak, hesi perimetralak eta antzekoak egiteko: -Proiektatutako obren eta erabilitako materialen deskribapen osoa. -Krokis kotatua oinplanoan, altxaera- eta sekzio-planoetan, egin behar diren obrena eta obrak egin behar diren eraikinaren edo eraikin zatien egungo egoerarena, 1:100 eskalan. -Kokapen-planoa, 1:100 eskalan. d) Obra kanpoan egin behar bada (estalkia konpontzea, fatxada, teilatu lau, balkoien... akaberak egitea). -Proiektatutako obren eta erabilitako materialen deskribapen osoa (kolorea). -Kokapen-planoa, 1:100 eskalan. e) Etxebizitza eta/edo lokal barruan obra partzialak egiteko: -Proiektatutako obren deskribapen osoa. -Araudi aplikagarria betetzen delako justifikazioa. -Oinplano, altxaera- eta sekzio-plano kotatuak, egin behar diren obrena eta obrak egin behar diren eraikinaren edo eraikin zatien egungo egoerarena, 1:50 eskalan. -Kokapen-planoa, 1:100 eskalan. f) Etxebizitzaren eta/edo lokalen erreforma integrala egiteko: -Oinarrizko proiektua, tekniko eskudun batek idatzia.		
<b>OBRA TXIKIAK/MERKATARITZA/ OBRA-LIZENTZIA</b>	-H337 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	Proiektu teknikoa, indarrean diren legezko xedapenetan zein hirigintza plangintzan eta Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumen, Paisaia eta Naturaren kontserbaziorako Ordenantzetan ezarritako irizpideen arabera.		
<b>ADMINISTRAZIO-LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERA SAILKATUAK</b>	-H401 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	Proiektu tekniko bat, profesional gaitu eta eskudun batek idatzia. -Ingurumen memoria -Planoak -Baimen sektorialak		
<b>OBRA HANDIKO LIZENTZIAK: OIN BERRIA, HANDITZEA, ERABERRITZEA, ETAB.</b>	-Eskaera orri orokorra -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Oinarrizko proiektu teknikoa, eskumena duten teknikari gaituek sinatua, Eraikuntza Ordenatzeko Legeak (EOL) xedatutakoari jarraituta. -Exekuzio-proiektua aurkezten bada, eskumena duten tekniko gaituek sinatuta egon behar du, EOLak xedatutakoari jarraituz, eta dagokion elkargo ofizialak bisatua. -Kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeriak eskatzen dituen gainerako baimenak. -Eusko Jaurlaritzak eskatutako Eraikuntzen eta Etxebizitzaren galde-sorta.		



TOLOSAKO  
UDALA

	<b>LEHEN ERABILERA LIZENTZIAK</b>	-ILER Eskaera orria. Lehen erabilera. -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Obra zuzendaritzaren obra-amaierako egiaztagiria. -Obra bukaerako dokumentua, obra-zuzendariak izenpetua eta dagokion elkargoak ikus-onetsia, obrak emandako lizentziaren arabera egin direla ziurtatzen duena. -Eraikin edo instalazioen kanpoaldeko argazkiak. -Amaierako likidazioa. -Behin betiko kalifikazioaren zedula, babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan. -Obra berriko deklarazioaren eta jabetza horizontala eratu izanaren deklarazioaren zirriborroa, dagokion lizentzian ezarritako baldintzetara egokitua. -Ondasun higiezinaren gaineko Zergan alta eman izanaren deklarazioaren zirriborroa, hala badagokio.	
	<b>PARTZELAZIO, BANANTZE ETA ELKARTZE LIZENTZIAK</b>	-H307 Eskaera Orria. -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Proposatutako lur zatiketa eta hori indarrean dagoen araudira egokitzen dela justifikatzeko memoria. Gainera, zatitu beharreko finka edo finkek eta ondoriozko lur zatiak deskribatuko dira bertan. -Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, jasotzen dituen eraginpeko finken jabari inguruabarrak, karga egoera eta horiek inskribatzeko funtsezko datuen deskribapena. Azken horiek doitasunez egokitu beharko dira dauden benetako inguruabarretara, eta horretarako, adostasunik edo doitasunik ez badago, inguruabar horietara egokituko dira aurrez, hipoteka-legerian aurreikusitako prozeduraren bidez. -Egungo egoeraren plano, lur zatiaren mugak grafiatuta dituen, eta hala badagokio, hirigintza guneen eta erabilera orokorreko zonen mugak, edo horretan eragin dezaketen hirigintza eraginak. Gainera, lur zati mugakideen jabeak adieraziko dira. -Banantze-planoa, egungo egoeraren planoko eskala eta baldintza orokor berberetan. -Banantze-eskriuraren zirriborroa. -Etxebizitzaren banaketaren kasuan, oinarritzko proiektu teknikoa.	
	<b>LURREZ ETA HARKAITZEZ BETELANAK EGITEA</b>	-H308 Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Proiektu teknikoa (Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. V eranskina). -Uraren eta biodibertsitatearen babeseko organoen txostenak.	
	<b>LURZORU URBANIZAEZINEAN BIDEAK ETA PISTAK EGIN EDO ALDATU</b>	-Eskaera orri orokorra -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	-Proiektu teknikoa, tekniko gaituak sinatua, Eraikuntza Ordenatzeko Legeak (EOL) xedatutakoari jarraituz, eta dagokion Elkargo Ofizialak bisatua.	
	<b>HERRI BIDEAK ERABILTZEKO BAIMENAK</b>	-Herri-bideen erabilera berezia eskatzeko inprimakia, behar bezala beteta		
	<b>ERAIKUNTZEN IKUSKAPEN TEKNIKOA</b>	-Eskaera orri orokorra -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	- Ikuskapenen ondoriozko txostena eta irizpena, XML artxiboan eta pdf formatuan, CD euskarrian ("euskoregite" programarekin bateragarri). - Erabilera- eta mantentze-planaren jakinarazpena (117/2018 Dekretuaren II. eranskineko ereduaren arabera).	
	<b>TERRAZAK JARTZEKO LIZENTZIA</b>	-HTER Eskaera orria -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)	Okupatutako azaleraren plano, krokis edo marrazki zehatza; mahai, aulki eta gainerakoen banaketa; fatxadaren luzera, geratzen diren espazio libreen zabalera, hiri-elementuen kokapena (trafiko seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, zutabeak, hiri-altzariak...), eta udal zerbitzuena (kutxatila, suteetarako ur-harguneak, ur hornidurako hustubideak, saneamendua, gasa, eta abar).	
	<b>UDALAREN MATERIALA ERABILTZEKO ESKAERAK</b>	-E00- Eskaera orri orokorra -05 Ordezkapen idatzia (hala badagokio)		



TOLOSAKO  
UDALA

